

CIENCIA HUMANOA NIRE FILOSOFIATIK

Ateoak ere onartzen ahal dit ezen salvaciorik badago hori bakarrik daitekeela egiaren bidetik joanez, bide bakar hori jorratuz (ateoarendako, jakina, traba gaindiezinak ditu bide horrek). Zeren bide hori bakarra baita, ala egiazko bidea hartzen da, inefablea dena, ala bestelakoak hartzen dira, izaten direnak falaciez beteak, errorez eta faltaz beteak. Eta ni Egiaren, egia handi haren, estudiantea naiz, ez naiz profesorea eta bai estudiantea, badakidalako asko daudela niri hamaika buelta ematen dizkidatenak nire hizpideetan falaciak eta erroreak topatzen. Ni baino doctoagoak direnak. Baina altura hauetan jada ez dut inork ikusten mariatu ahal nazakeenik bere absurdoekin, adibidez. Gaixoekin valiente direnak badauden arren, jakina denez. Emakumeak ere badira atrevitzen direnak gaixoekin valiente izaten, eta baditut ezagutzen asmoarekin gaixoa tormentuen bitartez hunditzeko. Eta halako valientekeriak gaiztoak baino malignidadearekin burutuak direnean deabruaren engendruak ere badira, deabrua gaiztoa baino malignoa baita.

Baina ekaitzen aurrean nire barcua ez da makurtzen eta hondoratzen, proak aurrera jarraitzen du etengabeko bidaiari

olatuak ebaten, zuzen ere zuzen bere helburu infablera iritsiko delako esperanzarekin. Harrizko gaixoa ni, salmoen Yhave lagun (nire barreneko poza lagun), asunturik importanteenean.

Ciencia materialak aurrerapen handiak egin dituela ez dago ukatzerik. Goetheren Fausto tragedian Faustoren ikasle Wagnerrek hori esaten zion bere maisuari eta Faustok esaten dio zeruraino ere iritsiak garela, ironia piska batekin, zeren Faustok bere ikerketetan privacioak eta privacioak, besterik ez baitu ikasten, eta leporaino dago bere bizitzaz, txakur batek ere ez lukeela eroango dio. Eta ni ere iritzi horretakoa naiz, hau da, ciencia materialatik zerua ez dugula inondik inora ikutu. Zeren Kanti jarraitzen badiogu zeruko atea izango litzateke ezagutza universal, esperiencia orotik gain dagoena, eta halako ezagutzarik, ciencia material hutsetik, ez da cosmos honetan, beraz ez da egia zerua ikutu egiten dugunik gure cienciarekin.

Izan ere ciencia humano orok dauka bere hastera casu particularretatik, modua beti da, beraz, inductivoa, eta operatu aurretik egin beharreko lehen pausua estudiatu behar ditugun objektu materialen definicioak zehaztea da. Baina izanik materiakoa mutablea, actividadea, erraz comprenitzen ahal da ezen sekula ez dela iristen definicio universalik gure objeto materialendako (objeto material baten forma izango litzateke objeto horren definicio universal, beraz guztia dugu aurrean, bapatean emana zaigu guztia, baina lan egin dezaguntzat), eta soilik hipotesiak eginez suposatu egiten dira halako definicio universalak, eta orduan ciencia egiten hastera posible da. Gauzak horrela ciencia materiala beti da, gure objetoen definicio zehatzagoak beti egin daitezkeelako, ciencia materiala beti da hobegarria, sekula ez du iristen ezagutza universal hori, zeina esperiencia material orotik gain dagoen (gure ciencia beti dago esperiencia materialetatik elikatua, eta horregatik ezin du uni-

versaltasun perfecturik lortu inoiz bere evolucioerri posible guztietan).

Hala ere ciencia materialak aurrerapen ikusgarriak eginak ditu. Brillua eta dena ateratzen zaio. Eta ni ere izan naiz luzaro iluminatua haren disdirarekin. Eta escolatik beti ikasi dut cosmos hau betidanikoa dela, evolucion infinitu batetik gatzela eta admirablea dela cosmos materialaren handia consideratzea. Haren aldean Bibliak contatzen duena zertan laburbiltzen da?, gizona izan aurretik nola creatua izan zen cosmos hau contatzen du labor labor, gizona ere nola creatua izan zen, gero, lehen historia batzuekin dago osatua (guztia contatzeko ez dago hainbeste libururik munduan), eta batez ere Abrahamekin hasten den herri aukeratu baten historia contatzen du, gero Jesusen historia (mundu honetatik igaro eta gero, badakigu nolako tratua eman zitzaion, Paradisura joan zen arte) , eta gero, Biblia oficialatik harutzago, Jesusek fundatutako Eliza Catolicoaren historia, eta Aitak eta Aitak contatzen dionak, Jesusen arabera, daki soilik noiz arte.

Historia cientifikoak contatzen duena eta Historia Sagraoak contatzen duena ez omen datoz bat. Baina hemen dakart nik argumento bat Historia Sagraoa lehenestearen aldekoa. Hara hemen. Historia biblikoan (eta Elizaren historian ere) badira contatzen, permititzen bazait horrela esatea, fenomeno sobrenaturalak, seinaleak, mirariak, signoak, molde aunitzetan definituak izan dira. Signoen azken definicioa nik emana da, eta diot ezen signo bat dela juicio sintetico bat a priori egina. Nire definicio horretatik derivatzen da consideratzea ezen Historia Sagraoan ageri denak ezagutza unibersala baduela, hori minimoa da, eta oraingoz nahikoa nahi duan demostracioa garatzeko eta bururatzeko. Zeren arestian concluitu baitugu ciencia materialak induccioz hasten dela beti, eta horrek dakar consideratu behar izatea, alde batetik, ciencia materialak sekula ez duela esperiencia orotik gain da-

goen ezagutza universal hori lortzen, eta beste aldetik, consideratu behar dugu ciencia materiala beti aurreratzen ahal dela infinituraino, infinitua actoan (izango litzateke ezagutza universal) sekula iristen ez badu ere. Ciencia materialak descubrimendu admirableak egiten ditu, egia da, baina ez genuke ahaztu behar bere tara hori, bere defectu hori, eta ahazten ez badugu admiratuko gara eta asko cienciarekin, baina ez gara iluminatuak geratuko.

Egia, hain zuzen ere, inondik etortzekotan teorizatu dugun ezagutza universal hortatik etorriko litzateke, duda barik. Eta hain zuzen ere hori Historia Sagradoan ageri da, hori Historia Sagradoan (testamentu zaharra, testamendu berria eta Eliza catolikoaren historia) desvelatu egiten zaigu. Eta Moises da personaje handi bat, baina harek bazioen ezen fenomeno sobrenatural haiek berak zuzenean ez zituela egiten (bere ahalmen soilez ez omen zen oso urrutira heltzen, bazekielako humanoa zela), baina hor ere badugu Jesus, zeinak Bere signoez ez zuen halakorik esan, Berak zuzenean egiten zituelako, Berak bazuelako ahalmen hori, ez bakarrik ezagutza universal, halakoak egiteko. Eta halako signoen estudiotik derivatzen ahal dugu ezen Jesusek bazuela ezagutza universal, beste ahalmenen artean, eta signoak consideratuz agerian geratzen hasten zaigula Haren gloria eta nagusitasuna orotan.

Ciencia materialak ez luke hori ahaztu behar, eta horrek ez du mugatzen bere estudio alorra, zeina baita cosmos materiala bere osotasunean. Baina ahazten delarik horretaz harrotu egiten da, eta adibide bat jarriko dut. Evolucioaren teoria (contemplacioa grekeraz) garatua izan da datu asko eta zehatzekin, eta badakigu anomalia cromosomicoak badirela, eta alteracio geneticoak eta baita derrigorrean gaixotasun ez diren mutacioak ere, eta evolucioaren teoriaren hastea da inductivoa, baina induccioan hastea casu particularretatik teoriatzatza baldin bada, induccioaren amaiera sekula ezin daiteke izan demostracio bat (hipotesiak egin daitezke baina hortik

ateratako demostracioak hipotesiaren arloaren barruan daude bakarrik, ez dute balio hitz batean esanda cosmos material honetaz ezer afirmatzeko universalki). Eta induccioa baldin bada evolucionismoaren teoriaren hasiera orduan ondorioztatu behar dugu teoria hori teoria baino imaginacio bat dela, ezin izan daiteke demostracioa izan, eta beraz teoria hori falacia batean eroria dela. Nik horrekin ez dut zientziaren bidea, hor ere, tratatzen, ni admiratu egiten naiz, eta asko, baina ez naiz iluminatua geratzen zientziak ateratzen omen duen brilluakin.

Azken batean zientziak bilatzen duena escripturetan aurkitzen da, eta azaltzen da misterio santu baten moduan, signoan, adibidez. Nik galdetzen dut: zeineri interesatzen zaio escripturak subestimatzeko?. Cientifico zintzoari?, historiadore zintzoari?, ala galdu nahi gaituenari?.

Bere metafisican Aristotelesekin badiu nola causa efectuen ilara infinituak hondatu egiten duela ongiak pensa daitekeen oro, eta gaur egungo zientzia hortik badoa gauza onik, azkenean, ez du ondorioztatzen, hori egia da. Bitartean fededunoi Apocalipsia eta holako aurpegiak digute, baina guk beti dugu segurantzaren ongi garaile aterako dela gure aventura gorabeheratsu honetan cosmos honetatik.

Amaitzeko, eta ondorio orokor gisa, egiazko filosofiak seinatzen duenaren aurrean zientzia, arrazoi humanoa, beti subordinatu egiten da. Hori da demostratua lagatzen dudana nire lanetan.

Zientzia humanoak bilatzen badu Biblian eta Eliza Catolicoaren historian fenomeno sobrenaturalak topatuko ditu, eta hor badaitezke fenomeno horiek (nik batzuk baditut definitu piska bat) definitu, eta definicio hoberenekin demaseko ondorioak ere ateratzen ahal dira filosofiaren historian, baina fenomeno sobrenatural horiek funtsean, cosmos honetan, misterio santuak dira, eta zientzia humanoa arrazoi garbiaren

azpitik dabil eta dihardu beti, empiricoa baita bere principioa beti, eta arrazoi garbia da lortu ezina cosmos material honetan, beti bilatzen den eta signoen estudiotik descubritzen den ezagutza universal delako funtsean, ezin iritsia dena cosmos material honetan, behintzat nire intelectoa obnubilatua ez badago.

Roman Garmendia.